**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**

**67/2022 TXOSTENA**

| |
|---|
| **Gaia:** Tonpoian oinezko bidea egiteko lurrak Euskal Herriko itsasertz mugartearen esku uztea (2.fasea) |
| **Espediente zenbakia:** IDA_ERA_0236 (2022) |
| **Espediente tramitatzailea:** Urigintza, Obra eta Ingurumen saila |
| **Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.c artikulua |

## 1. Aurrekariak

Lehena: 2022ko urriaren 10ean, Euskal Herriko itsasertz mugartearen arduradunaren idatzia jaso da Bermeoko hirigunearen eta Aritzatxu hondartzaren arteko oinezko bideak egiteko proiektua dela eta, hurrengoa eskatuz:

…

*"Se requiere de ese Ayuntamiento de Bermeo la emisión de Certificado en el que, condicionado a que se ejecute la actuación proyectada, ponga a disposición de la Administración del Estado los terrenos necesarios para la realización de las obras y su incorporación al dominio público marítimo-terrestre.*

*Además, el Ayuntamiento debe acompañar Certificado del Registro de la Propiedad en el que conste la titularidad municipal de los terrenos y su situación libre de cargas.*

*En caso de que los terrenos no estén inscritos, deberá presentar certificado del Registro acreditando la no inmatriculación y la documentación que avale la titularidad municipal sobre los mismos.*

*Así mismo, deberá constar el compromiso del Ayuntamiento para el mantenimiento del espacio objeto de las obras, una vez terminados los trabajos."*

…

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2022 15:44:13

EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0236
Datea: 10/10/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bigarrena: Espedientea izapidetu da, espedienteak hurrengoak daude:

- Euskal Herriko itsasertz mugartearen arduradunaren idatzia
- Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko AOTaren txosten juridikoa
- Memoria justifikatzailea
- Jabetza erregistroko inskripzioa eta udal inbentarioko ziurtagiria
- Arkitektoaren txostena
- Kontuhartzailearen txostena
- Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko AOTaren erabaki proposamena

## 2. Oinarri juridikoak

### 2.1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (47.2.ñ artikulua)

- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia (TEOA) onartzen duena (109. artikulua eta hurrengoak.)

- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onartzen duena (79-81 artikuluak)

### 2.2. Azterketa juridikoa

**Ahalbideratzea**[1]

Ondasun higiezinak bakarrik laga ahal zaizkio Erakunde edo Instituzio Publikoei, udal mugartearen biztanleen onurarako diren helburuetan erabiltzeko; edo irabazteko asmorik ez duten Instituzio Pribatuei.

Lagatze horien berri emango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko aginte eskudunari.

[1] Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 109.2. artikuluaren arabera



CSV: 07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2022 15:44:13

EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0236
Datea: 10/10/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Prozedura**[2]

1.- Espedientean hurrengo agiri hauek egon behar dira:

- Erakundeak edo Instituzioak berak haren izaera publikoa justifikatzen duen agiria, eta jarraitzen duen helburua argi eta positiboki udal mugartearen biztanleen onurarako dela frogatzen duen Memoria.

Espedientean dago.

- Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, ondasunak behar bezala inskribatuak daudela eta ondare izaera dutela egiaztatzen duena.

Desjabetzapen espedienteen ondorioz eskuratutako lurren jabetza erregistroko ziurtagiriak falta dira espedientean.

- Korporazioko Idazkariak emandako ziurtagiria ondasunak aipatutako kalifikazio juridikoarekin Korporazioak onartutako Inbentarioan agertzen direla adierazten duena.

Desjabetzapen espedienteen ondorioz eskuratutako lurren udal inbentarioko ziurtagiriak falta dira espedientean.

- Kontu-Hartzaileak igorritako txostena, Udal Aurrekontuaren kontura likidatu beharreko zorrik ez dagoelaren ingurukoa.

Espedientean dago.

- Udal Teknikariaren balioztatze Txostena baiezten duena ondasunak ez daudela barneratuta, ez antolamendu, ez erreforma, ez egokitze ezein Planetan; ez direla beharrezkoak Toki Erakundearentzat eta ez dela aurreikusten hurrengo hamar urteetan ere beharrezkoak izango direnik.

[2] Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 110. artikulua



CSV: 07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2022 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2022 15:44:13 | EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0236 Datea: 10/10/2022 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

Espedientean dago.

- Jendaurreko informazioa, hamabost egun edo gehiagoko epean.

Jendaurreko informazioaren aldiari begira kontraesana dago TEOAren 110. artikuluan xedatzen denaren eta Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidearen 39/2015 Legearen 83.2. artikuluan agintzen denaren artean. Beraz, komenigarriagoa da 39/2015eko aurreikuspenarekin bat egitea, hau da, hogei eguneko epeko informazio publikoa ematea; izan ere, goragoko eta geroagoko araua da, eta epea horrek berme gehiago ematen dio herritarrari.

Erabaki proposamenean horrela ageri da.

- EuskalAutonomia Erkidegoko organo eskudunari berri emango zaio, hori ezagutu dezan, espedientea bidalita.

Erabaki proposamenean horrela ageri da.

**Eskumena**[3]

Ondasunak doan lagatzeko onarpena emateko organo eskuduna osoko bilkura izango da, korporazioko legezko kideen gehiengo osoaz, hau da 9 kideren baiezko botorekin.

**Ondorioak**

Idazkari honek **baldintzatuko aldeko txostena** egiten dio Tonpoian oinezko bidea egiteko okupatutako diren lurrak Euskal Herriko itsasertz mugartearen esku uzteari.

Baldintza: Espedientean jaso behar dira lagatuko diren lur guztien Jabetza Erregistroko ziurtagiriak eta Udal Inbentarioko ziurtagiriak. Ildo horretan, kontuan izan behar da

---

[3] Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.ñ) artikuluarekin eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 EDren 110.1 artikuluarekin bat.


CSV: 07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2022 15:44:13

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0236
Datea: 10/10/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

Euskal Herriko itsasertz mugartearen arduradunaren idatzian hurrengoa eskatzen dela:

...

*"...*

*Además, el Ayuntamiento debe acompañar Certificado del Registro de la Propiedad en el que conste la titularidad municipal de los terrenos y su situación libre de cargas.*

*En caso de que los terrenos no estén inscritos, deberá presentar certificado del Registro acreditando la no inmatriculación y la documentación que avale la titularidad municipal sobre los mismos.*

*..."*

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

***Oh.*** *Orri oinean sinatzailea eta data*

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B017B00S3L6H2C4C5L1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 07/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/11/2022 15:44:13

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0236
Datea: 10/10/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia